

PRINTZIOEN ALDARRIKAPENA

SINDICATO MÉDICO DE EUSKADI

[SINDICATO MÉDICO DE EUSKADI-REN ERAKETA-AKTA]

Gizakiak bere osotasun materialean eta espiritualean erabateko errespetuaren objektua izan behar du. Pazientearen eskubideen bermeak, nahita ez, lanbide mediko antolatua eta Estatuaren arduradunen artean lortutako adostasun etengabearen ondorio izan behar du.

Estatuaren osasun politikaren eta **sendagileen jardunbidearen helburu nagusia** hiritar guztien osasuna babestea da. Gobernu guztien betebeharrak bat da gizarte-kategoria guztiei, bat bera ere baztertu gabe, behar dituzten tratamendu medikoak eta mediko-kirurgikoak helaraztea bermatzeko xedapen guztiak hartzea..

Pazienteak bere sendagilea hautatzeko eskubidea izango du, eta sendagileak bere pazientea hautatzeko ere bai, ez bada larrialdi edo gizatasun egoera batean.

Sendagilearen eta gaixoaren arteko elkarrizketa bereziak, kontuan hartzen du bi elementuak komunitatekoak direla; hain zuzen ere horixe da, edozein osasun nahiz gizarte politikaren baldintza.

Sendagilea aske izango da bere espezialitatea hautatzeko, baita non jardungo duen erabakitze ere; aldi berean, modu askean hautatu ahal izango du terapia. Sendagilearen jardura kontrolatu edo ikuskatu behar denean, sendagile lanbidekoak izango dira epaile.

Sendagileak aske izango dira euren jardura lankidetzan egin ahal izateko, lanbidearen behar tekniko eta gizarte beharrak kontuan hartuta, sendagile bakoitzaren erantzukizun pertsonalari eusten dion eta independentzia moral eta tekniko errespetatzen duen oinarria abiapuntuz hartuta.

Lanbide medikoa bat bera da edozein delarik espezialitatea eta deontologia berari erantzungo dio, nahiz eta antolakuntza baldintza ezberdinak eragin diezaioketen. Lanbide medikoa osatzen dutenek, medikuntzaren jardueraren oinarrizko printzipioak errespetatu daitezkeen borroka egin dezakete eta egin behar dute, pazienteen eskubideak errespetatuz, betiere.

Sendagilearen **independentzia profesionala** izendapen irizpide inpartzialen eta, betebeharren egonkortasuna, independentzia ekonomikoa eta gizarte babesa ziurtatuko dion Estatutu baten bidez bermatu behar da. Sindicato Médico Libre-k sendagilearen dedikazioaren aukera ezberdinak ezagutzen ditu eta indartzen ahaleginak egingo ditu.

Estatuak medikuen soldaten **ordainketa egokia** bermatu beharko du, erakunde kudeatzailearen egoera ekonomikoa edozein dela ere. Ordainsaria Mediku Sindikatuak adostu eta onartutako negoziazioen emaitza izango da.

Estatuak lanerako prest agertzen diren Espainiako sendagile guztiei, bere agindupeko erakundeen bitartez, **lanpostu bana bermatu beharko die**. Ez da onartuko sendagilearen, zerbitzuen edo gaixoaren eskubideen zapalketarik, inolako erakunderen eskutik. Zerbitzu Medikoen ordainketa pazientearen eta sendagilearen artean, modu zuzenean, erabakita ez dagoenen kasuetan, Medikuntzaren jarduerak duen garrantzia eta berarekin daraman erantzukizun handia egokiro kontuan hartu behar dira.

Sendagileak bere **lanbidearen ezagutzan** sakontzeko eta mailaz gora egiteko bidea eskainiko dion edozein jardueratan parte hartzeko aukera izan behar du.

Sindikatuaren ordezkaritza egokia izango da bere kideei eragiten dioten egoera guztietan.

Bilbon, Mila Bederatziehun eta Laurogeiko Ekainaren Bia.

